

Inbertitzeko printzipioen aitortpena

Euskadiko Pentsioak Mistoa, BGAE

1.> Aurreikuspen-planaren identifikazio-datuak

>> Aurreikuspen-planaren datuak

a. Izena	Euskadiko Pentsioak Mistoa, BGAE
b. Sistema	Sistema indibidualeko aurreikuspen-plana

>> Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen datuak

a. Izena	Euskadiko Pentsioak, BGAE
b. BGAE-en erregistroko zenbakia	106-G
c. IFZ	V20211702

>> Aurreikuspen-plana sustatu eta gordailatzen duen erakundearen datuak

a. Izena	Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito - Lan Kide Aurrezkia
a. Helbide soziala	Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
b. IFZ	F75076935

Planaren inbertsio-orientazioa: Errenta aldakor mistoa

2.> Inbertitzeko printzipioen aitortpena

>> Inbertsio-irizpidea Planaren aktiboa osoko edo ohiko bazkideen eta onuradunen mesedetan inbertituko da, batez ere araututako merkatuetan, betiere segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, dispersioa, moneta-kongruentzia eta helburuetara moldatutako epeak aintzat hartuta.

>> Balorazio-irizpidea Merkatuko prezioaren edo burutzapen-balioaren arabera baloratuko dira, funtsean, Planeko aktiboak, indarreko legediak finkatzen dituen gidalerroei jarraiki.

>> Banaketa estrategikoa

Errenta finkoa: 60% Errenta aldakorra: 40%

>> Inbertsio-politikaren mugak Indarreko legediak ezarritako inbertsio-mugak errespetatuko ditu Planak, eta, bereziki, 97/2007 Dekretuaren 11. artikulua. Gehienez ere % 50 inbertituko du errenta aldakorrean eta gutxienez %30. Arauturiko merkatuetan kotizatzen duen enpresa baten aktiboetan ezingo da Planeko aktiboaren % 5 baino gehiago inbertitu, ezta % 10 baino gehiago ere talde bereko enpresa batek jaulkitako aktiboaren kasuan. Kotizaziorik gabeko baloreak izanez gero, muga % 2koa eta % 4koa izango da, hurrenez hurren. Arrisku-kapitalen sozietateek edo fondoek jaulkitako baloreetan eta partaidetzetan ezingo da jaulkitako titulu edo zirkulazioko partaidetza guztien balio nominalaren % 20 baino gehiago inbertitu. Europako Esparru Ekonomikoan kokaturiko eta 85/611/CEE Zuzentarauaren arabera koordinaturiko IKE bakar batean edo aktiboaren titulazio fondo batean, edo IKE-en 35/2003 Legeak eta gainerako garapen-xedapenek arauturiko finantza-izaerako IKE batean, ezingo da Planeko aktiboaren % 20 baino gehiago inbertitu. Egituraturiko aktiboek maiatzaren 29ko 97/2007 Dekretuaren 11.4 artikulua finkaturiko mugak errespetatu beharko dituzte.

>> Aktibo gaiak Indarreko araudiak une bakoitzean ahalbidetzen dituen aktibo gaietan inbertitu ahal izango du Planak, baina inbertsio-politikaren mugetan ezarritakoa ahaztu gabe. S&Pren eta antzekoen BBB- inbertsio mailako ratingdun jaulkipenak izango dira, funtsean, errenta finkoko aktiboaren inbertsioak. Rating txikiagoak edo ratingik gabekoak, gehienez, aktiboaren % 25 izango dira. Egituraturiko aktiboek gutxienez A edo AA ratinga izan beharko dute, horien motaren arabera, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

>> Deribatuak Indarreko legediari jarraiki, Panak izango du tresna deribatuetan inbertitzerik, bai estaldurako eragiketetan bai inbertsiokoetan, baina arrisku-profila errespetatuta betiere.

>> Arrisku-profila Aurreikuspen-plan honek arrisku-profil ertaina du, eta inbertsio-profil moderatuetarako eta/edo estalitako kontingentziaren bat gertatzeko aurreikusitako epea 7 urtetik gorakoa dutenentzat da gomendagarria.

>> Arriskuak neurtzeko metodoak Merkatu-arriskua . Errenta finkoa. Planaren iraupena 0 eta 7 urte bitartekoa dela egiaztatzen da. Aktiboak ELGAren esparruan jaulkiko dira. Errenta aldakorra. Planak izan ditzakeen gutxieneko eta gehieneko ehunekoak egiaztatzen dira, bai eta legeak ezartzen dituen goiko mugak ere. Bokazioa globala da, batez ere ELGEko herrialdeena, garatzeko bidean dauden herrialdeen akzioetan % 20arekin gehienez ere. Deribatuak: Deribatuetako posizioaren delta eskurako posizioari gehitzen zaio, errenta finkoko iraupen-mugak kontrolatzeko. Alderdi kontrarioaren arriskua. Jaulkitzailearen kalitatea aktibo egokien atalean finkatutako mugaren arabera kontrolatzen da. Likidezia-arriskua. Bazkide partaideen mugimenduei erantzuteko beharrezko likidezia egunero kontrolatzen da. Arrisku legalak. Arauak zenbateraino betetzen diren eta Gobernu Batzordeak finkaturiko inbertsio-jarraitibideak kontrolatzen dira. Eragiketa-arriskua.

	Eragiketak eta horien berrespenak kontrolatzeko prozesuak daude, aktiboen prezioak zuzenak direla eta egoki balioetsita daudela ziurtatzeko. Kontabilitate-bateratzeak egunero egiten dira. Laboral Kutxak jokabideen barne-araudia eta sistema informatikoetarako kontingentzia-plana ditu.
>> Arriskuen kudeaketa kontrolatzeko prozedurak	Gobernu-batzordeak Planaren arriskuaren kudeaketa kontrolatzeko prozedura bat onartu du. Hori Erakundearen eta Laboral Kutxaren artean formalizaturiko kudeaketa-, administrazio- eta gordailu-kontratuan jasotzen da. Kontratu horren arabera, Laboral Kutxak aldizka informazioa eman beharko dio aurreikuspeneko erakundeari, horrek kontratuko finantza-aktiboen kudeaketa eta egoera egoki kontrolatu ditzan. Zehazki honako informazio hau emango zaio: ✓ Jardueraren negozio-zifrak. Nagusiki: kudeaturiko ondarearen tamaina, bezero-kopurua, komisioak eta sorturiko emaitzak. ✓ Planen errentagarritasun datuak eta lehiakideekiko egoera. ✓ Zorroren xehetasuna, horien arrisku-parametroena eta horien egoera plan bakoitzerako zehazturiko inbertsio-planekiko egoerarena. ✓ Eredu-zorroak, benetako zorroren emaitzak eta erreferentzia-adierazleen bilakaera. ✓ Eginiko eragiketen eta eguneko balorazioen hileko txosten osoa. Laboral Kutxak kudeatzen duen aurreikuspen-plan bakoitzerako eginiko inbertsioak aurreikuspeneko erakundearen gobernu-batzordeak onarturiko Inbertsio Printzipioen Aitorpena egokitu beharko dira. Laboral Kutxak bere administrazio- eta kontabilitate-antolakuntzaren esparruan barneko kontrol-prozedurak eduki beharko ditu, kudeatzen dituen aurreikuspen-planen inbertsioak aurreikuspeneko erakundearen gobernu-batzordeak onarturiko erabakiak errespetatuz egiten direla bermatzeko. Gainera, Entitatearentzat lan egiten duten pertsonen funtzionamendu egokia zaindu beharko du, baita informazioari eta parte hartzeari loturiko gaien inguruan bazkideekiko eta onuradunekiko BGAE-en jardura ere.
>> IJA Politika	Euskadiko Pentsioen Gobernu Batzordeak inbertsio jasagarri eta arduratsuari buruzko politika bat onartu du, aktiboak aukeratzean baztertzeko eta balorazio irizpideak erabiltzean datzana.
>> Urterako errentagarritasun helburua	Planeko erreferentzia-ko indizeen administrazio-gastuak kenduta ateratzen den errentagarritasuna, errenta finkoan % 60 eta errenta aldakorrean % 40 inbertituta.
>> Likidezia-koefizientea	Planak prestazioei aurre egiteko moduko likidezia-koefizientea izango du. Koefiziente hori ageriko gordailuetan eta hiru hiletik behariko mugaeguna duten diru-merkatuko aktiboetan egongo da, funtsean.